


MARTXOAREN 8A

JARDUERA DIDAKTIKOAK LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZARAKO

"Ardura banaketa. ELKARRERANTZUKIZUNA"



AURKIBIDEA

- SARRERA: HELBURUAK ETA ORIENTABIDEAK
- KONTZEPTUAK
- 1. JARDUERA: MARTXOAREN 8KO HISTORIAREN AURREKARIAK.
- 2. JARDUERA: LAN PRODUKTIBOA ETA LAN ERREPRODUKTIBOA
- 3. JARDUERA: LANAREN BANAKETA SEXUALA
- 4. JARDUERA: LANAREN BALORAZIOA
- 5., 6. ETA 7. JARDUERAK: NORK EGITEN DUEN ZER?
- 8. JARDUERA: LAN ESKAINTZAK
- 9. JARDUERA: PARTEKATZEKO MUNDU BAT
- MATERIALAK



SARRERA

HELBURUAK

Aurten ere Martxoaren 8a ospatuko dugu, Emakumearen Nazioarteko Eguna. Oraingoan gure proposamenak gizartean sexuen araberako lan banaketan dauden topiko eta estereotipoak deusezten lagundu nahi du, beharrezkoak diren lan guztiak gizonen eta emakumeen artean bana ditzagun eta, era horretan, guztiok baldintzen berdintasunean goza dezagun bizitza. Honako hauek izango lirateke aurkezten dizkizuegun jarduera didaktikoen helburuak:

1. Sexista ez den orientabide pertsonala bultzatu, jokaera planifikatu baten bidez irakaskuntza maila guztietan zehar.
2. Sexua kontuan hartu gabe, baloreak eta giza-gaitasunak garatzeko aukera ematen duen ikasketa ereduak sortu.
3. Historian zehar emakumeek egindako lana aintzat hartu.
4. Hainbat emakumeren garrantzi historikoa baloratu.
5. Eremu erreproduktiboan elkarrerantzukizunean hezi.
6. Lan erreproduktiboa talde-lana bezala baloratu.
7. Lanbidea aukeratzeko momentuan norberaren gaitasun eta interesen garrantziaz ohartu.
8. Neskak esparru publikoan sar daitezten aukerak eman eta beharrezko jarrerak bultzatu.
9. Informazio iturrien aurrean jarrera kritikoa sustatu.
10. Nahiz hizkuntzan agerian dauden ezaugarri sexisten aurrean nahiz hezkuntza-programetan agertzen diren eduki androzentrikoen aurrean azterketa kritikoa bultzatu ikasleengan.

Irakasleentzako jarraibideak:

- Jarduerarako proposamenen jarraibideak alda daitezke irakaslearen irizpidez, taldearen ezaugarrien arabera (ideien zaparrada, taldeka pentsatzea, bikoteka, banaka) Ondorioak ziurtatzeko beti guztion artean egitea komeni da.
- Jarduerak egin baino lehen kontzeptu batzuk argitzea komeniko litzateke.
- Malgutasuna: irakasleak ikasleen mailari egokitu beharko dizkio, hizkuntza, istorioak eta jarduerarako proposamenak aldatuz.
- Ez dira gutxietsi edo arbuia behar banaka egiten dituzten ekarpenak, ikasleek benetan sentitzen dutena adierazten jarrai dezaten.
- Egokia izan daiteke ikasleek ondorioak koadernoetan idatziz jasotzea edo txarteletan antolatzea.
- Kontutan izateko:
 - Proposatzen dizkizuegun jarduera didaktiko hauek bi alde dituzte: azalpen teorikoa eta ariketa praktikoak. Alde teorikoa irakasleek azal dezakete ikasgelan edota ikasleentzako material gisa erabili.
 - 5, 6, 7 eta 8 jarduerak Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduta daude.
 - Azkena, 9. jarduera, ondoriotzat hartuko genukeena, edozein adinetako ikaslerentzat izan daiteke egokia.



KONTZEPTUAK

Kontzeptu hauek kontuan hartu beharko dira jarduerak hasi baino lehen.

Sexua: Gizona-Emakumea. Sexua, pertsonak gizon edo emakume diren esateko oinarritzat hartzen diren ezaugarri biologikoen multzoa da.

Generoa: Maskulinoa-Femeninoa. Kultura batean pertsona bati bere sexuagatik esleitzen zaizkion balioen, sentimenduen, jarrerren, jokabideen, gaitasunen, rolen... multzoa da.. Multzo hori, beti ere, gizarteak historiaren une bakoitzean emakume edo gizon batek izan eta egin behar duela uste duenaren menpe egongo da. Azken buruan, pertsonen garapen osoa mugatzen duen eraketa kulturala da.

Sexismoa: Sexu batekoa ala bestekoa izateagatik gizaki batek edo gizaki talde batek beste bat menperatzea. Sexu batekoa ala bestekoa izateagatik pertsonen ikuspen estereotipatua izatea da.

Lan erreproduktiboa: soldata jaso gabe eta pertsonen biziraupenaz eta mantenuaz arduratzeko egiten den lana da.

Currículo ezkutua: Hezkuntza eremuan eta ikastetxeetan dauden gizarte harremanetan guztiok – baita irakasleek ere-inkontzienteki ematen ditugun kontzeptu, jarraibide eta balio implizituen multzoa. Eskola garaian ikasleek hartzen dituzten jarrera eta jokabideetan berebiziko eragina dute.

Laneko bereizkeria: Lan gehienak maskulinoztat edo femeninoztat hartzen direnez gero, lanean sexuarengatik bereizkeria egiten da, neurri batean edo bestean: badira gizonek edo emakumeek bakarrik betetzen dituzten lanak, eta badira biztanleriaren batez bestekoa baino emakume edo gizon gehiago

dituzten lanak. Bi bereizkeria mota daude: horizontala eta bertikala.

Bereizkeria horizontala: Sektore eta jarduera jakin batzuetan (hezkuntza, gizarte-sorospena eta, oro har, zerbitzuak) emakume kopuru handi-handia izatea da bereizkeria horizontala. Lanbide horiek etxeko lanen eta ugaltzearen ingurukoak dira, hots, familiako rolen isla dira. Hartara, emakumeen ehuneko handia dugu erizainen, irakasleen, jostunen, etxeko laguntzaileen... artean.

Bereizkeria bertikala: Laneko kategoria desberdinetan emakume eta gizonen proportzio desberdina izatea da bereizkeria bertikala. Kategoria handiagoko postuak gehienetan gizonen esku daude, eta kategoria baxuagokoak, berriz, emakumeen esku. Hori dela eta, txikiagoak dira bai soldatak eta bai gizarteak ematen dien balioespena.

Lanaldi bikoitza: Lan merkatura sartu diren eta familiako arduren nahiz etxeko lanen erantzukizuna hartzen duten pertsonak egiten duten lan bikoitza. Batik bat emakumeak izaten dira egoera horretan.

Elkarrerantzukizuna: Gizarte, familia eta lanbide erantzukizunak zuzentasunez banatzea, sostengu ekonomikoa – gizonei esleitu izan zaiena- eta etxeko lanak eta pertsonen zaintza – emakumeei esleitu izan zaiena- elkarrekin bizi diren pertsona guztien artean bana daitezten.



1. Jarduera:

Jarduera honen bitartez **bi helburu** nagusi lortu nahi ditugula gogorarazi nahi dugu: Emakumeen mugimenduak nola eta noiz hasi ziren eta borrokari esker zenbat eskubide lortu dugun.

MARTXOAREN 8KO AURREKARI HISTORIKOAK. EMAKUMEEN ESKUBIDEAK GIZA ESKUBIDEAK DIRA.

1789: Frantziako iraultza garaian Paris-eko emakumeek emakumeen botoa lehen aldiz aldarrikatu zuten Versaillesera egindako martxan.

1791: Gouges-eko Olimpiak Frantziako Nazio-Biltzarrean "Emakumearen Giza Eskubideen Deklarazioa" aurkeztu zuen.

1792: Mary Wollstonecraft ingelesak "Emakumearen Eskubideen Erreibindikazioa" argitaratu zuen.

1832: Mary Smith de Stannore emakumeen eskubide politikoak aldarrikatu zituen Ingalaterrako Komunen Ganbaran.

1857: Nueva York. Ehungintza eta jantzigintzako emakume langileen greba handia..

1899: La Haya. Emakumeen Biltzarra bildu zen Munduko I Gerratea eragin zuten ideia belizisten aurka.

1908: Nueva York. Sutea ehungintzako lantegi batean. 130 emakume hil ziren.

1910: Copenhagen. Emakume sozialisten Nazioarteko Biltzarra. Clara Zetkin-ek Martxoaren 8a ospatzea proposatu zuen.

1911: Emakumearen Nazioarteko Eguna lehen aldiz ospatu zen Alemanian, Austrian, Danimarkan eta Suitzan.

- 1912:** Ospakizuna **Frantzian, Herbehereetan eta Suedian.**
- 1913:** Ospakizuna **S.Petesburgo (Errusia)**, poliziak eragotzi arren.
- 1914:** Martxoaren 8an bakearen aldeko emakumeek Europan hastear zegoen gudaren aurkako protesta egin zuten.
- 1931:** Espainian emakumearen sufragioa onartu zen.
- 1952:** NBEk "Emakumearen Nazioarteko Eguna" ezarri zuen.
- 1977:** NBEren Batzar Nagusia. Urtean egun bat Emakumeen Eskubide eta Nazioarteko Bakearen aldeko eguna aldarrikatzeko eskatu zitzaion Gobernuari.
- 1979:** NBEren Batzar Nagusiak "emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko Hitzarmena" onartu zuen.
- 1980:** **Dinamarca.** Emakumeari buruzko munduko II Biltzarra. Enplegu, osasuna eta hezkuntzarako Ekintza Programa onartu zen.
- 1981:** **Bogotá.** Latinoamerika eta Karibeko I Topaketa Feminista. Azaroaren 25ean Emakumeek jasaten duten indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna" ospatzea erabaki zuten.
- 1985:** **Nairobi.** Emakumeari buruzko munduko III Biltzarra. Azken hamarkadan lortutako aurrerapenak ebaluatu ziren.
- 1994:** **El Kairo.** Populazio eta Garapenari buruzko Nazioarteko Biltzarra.
- 1995:** **Beijing.** Emakumeari buruzko munduko IV Biltzarra. Berdintasuna, garapena eta bakerako ekintza plataforma erabaki zen.



2000: Emakumeen Munduko Martxa. Martxoaren 8an hasi eta urriaren 17an bukatu zen Neu York-en NBEren aurrean egindako mundu mailako kontzentrazioan. Hiru ardatz: pobrezia, indarkeria eta emakumeen arteko nazioarteko elkartasuna.

2005: Emakumeen 2. Munduko Martxa. Berrito ere munduko emakumeok indarkeria, pobrezia, baztertzea eta ikusezintasunaren aurka elkarrekin aurrera egiteko aukera dugu. Dagoeneko munduko milaka emakume antolatzen ari dira guztion artean giza-, politika-, hezkuntza-, lan- eta kultura-alternatibak sortzeko begirunea eta berdintasunetik abiatuta.

Hau idazten den unean Gizateriarentzako Emakumeen Munduko Karta (www.emakumemartxa.org) gauzatzen ari dira.

Jarduerak:

Hemen mugimendu feministarentzat oso garrantzitsuak izan diren hainbat data agertzen dira eta beraien borrokari esker aurrerapen handiak lortu dira.

- Ikastaldea talde txikietan banatu.
- Talde bakoitzak data sorta bat hartuko du informazioa bilatzeko, bai entziklopedietan bai Interneten.
- Talde guztiek hautatutako datei buruzko informazio esanguratsua eskuratu eta landu ondoren, taldeetako ordezkariak talde nagusiaren aurrean aurkeztuko dute.
- Amaitzeko, Emakumeen Munduko II Martxaren urtean gaudenez, Gizateriarentzako Emakumeen Munduko Karta zer jaso beharko lukeen eztabaidatu eta idatziz jaso.

2. Jarduera: LAN PRODUKTIBOA ETA ERREPRODUKTIBOA

Jarduera honen **helburua** da lan erreproduktiboa zer den jakinaraztea, baita ezinbestekoa dela eta gehienetan emakumeek egiten dutela.

Gure gizartean etxetik kanpo eta ordainduta egiten den zereginari bakarrik deitzen zaio lana (hau da, tailer, denda, bulego edo obra batean). Etxean eta familiaren esparruan egiten denari, diruz ordainduta ez dagoenez gainera, ez da aintzakotzat hartzen, ez da lana kontsideratzen. Horrelako hainbat zeregin badauzkagu: etxea garbitu, janariak prestatu, erosketak egin, arropa zaindu eta konpondu, beste pertsonak zaindu: seme-alabak, pertsona zaharrak, gaixoak, estimua adierazi eta orokorrean etxeak funtziona dezan behar diren gestio guztiak egin.

Etxean egiten den lanari eta pertsonen biziraupenaz eta mantenuaz arduratzeari **lan erreproduktiboa** deritzo. Etxetik kanpo egiten den lanari eta diruz ordainduta dagoenari, berriz, **lan produktiboa**.

Lan erreproduktiboak lan produktiboa burutzea ahalbideratzen du. Lehenengoa egingo ez balitz, ezin liteke bigarrena egin. Noizbait pentsatu al duzue bi lan mota hauek existitzen direla?



Eguneroko zereginetan

Bi talde ezberdinetan jarri eta hor dituzuen bi testuak adi-adi irakur itzazue. Talde bakoitzak 1. egoera edo 2. egoera antzeztu beharko du, irakasleak aholkatzen dizuenaren arabera.

Erabaki ezazue nola antzeztuko duzuen eta nortzuek. Talde bakoitzean pertsona batzuk aukeratu behar dituzue behaketa egin dezaten eta ardura daitezen beste taldearen antzezlanari buruzko informazioa jasotzen behean dituzuen galderei erantzunez. Gero ikasgelako guztion artean eztabaidatuko duzue. Kartulinak, oihalak eta beste tresna batzuk erabil ditzakezue antzezlana errazteko. Ekitaldia hasiko da!!

Egoera 1:

Peruk 45 urte ditu. Bere lan eguna goizeko 9etan hasten da: egunero – astelehenetik ostiralera- goizeko 8etan altxatzen da, dutxa hartzen du eta bizarra kendu eta gero, txukuntzen den bitartean, emazteak prestatu dion kafe bat gosaltzen du.

Kafea hartu eta gero, etxetik ateratzen da eta mekanikari lan egiten duen tailerrera joateko autoa hartzen du. Hogei minutuko bidea egiten du gutxi gorabehera. Lanera iristen denean bere lankideak agurtzen ditu, irratian entzun dituen berriak komentatzen ditu eta lan-jantzia jartzen du. Goizeko hamarretan edo, beste lankideren batekin ateratzen da gosaltzera; itzultzen denean, lan eta lan ordu biak arte, etxera bazkaltzera joateko ordua. Ordu bi eta erdietan etxera iristen da eta bazkaltzeko mahaia eta den-dena prest aurkitu ohi du. Bazkaldu ondoren besaulkian lo kuluxka bat egiteko ohitura dauka, berriro arratsaldeko 5etan lanera bueltatu arte. Han 8ak arte egongo da. Lanetik ateratzen denean, egunen batzuetan, bere lankideekin geratzen da tabernan garagardo bat hartzeko, egun horretan gertatutakoa edota gauean jokatuko den futbol partiduari buruz hitz egiteko. Etxera ailegatzerakoan, esertzen da atseden hartzeko eta telebista ikusten edo seme-alabekin hitz egiten duen

bitartean afaria prest egon arte zain geratzen da. Afaldu ostean, besaulkian jezartzen da eta telebistako programaren bat ikusten du ohera joan arte, hurrengo egunean berriro hasteko.

1. Aipatu banan-banan Peruk egiten dituen ekintza guztiak.
2. Zein ordutan jaikitzen da?, Zein ordutan bukatzen du lana?
3. Zer egiten du bazkaldu ostean? Eta afaldu eta gero?
4. Zein egunetan egiten du lan? Zein da bere ordutegia?
5. Peruk lan egiten duela uste duzu? Zergatik?

Egoera 2:

Marianek 48 urte ditu. Goizeko 8ak laurden gutxitan altxatzen da, komunera joaten da eta txukuntzen da, gero sukaldera doa eta gosaria prestatzen du. Bere senarrak komunean bukatzen duenean, berak bere seme-alabak esnatzen ditu dutxa har dezaten eta gosal dezaten.

Zortzi eta erdietatik aurrera hasten dira etxetik irteten bere senarra eta bere seme-alabak eta orduan gosaltzen du Marianek. Ondoren, etxeko leihoak irekitzen ditu, oheak egin, hautsa kendu, erraztu eta aurreko egunean bukatu gabe gelditutako gauzak jasotzen ditu. Geroago, sukaldea eta komuna garbitzeko txanda dator. Zeregin hauekin bukatzen duenean, goizeko 11:30ak dira eta orduan janzten da erosketak egitera joateko. Egunen batzuetan banketxera joateko ere aprobetxatzen du edo eginbeharren bat egiteko. Poltsekin itzultzen denean, erosi duena gordetzen du eta bazkaria prestatzen hasten da, eta normalean oso justu ibiltzen da ordu bi eta erdietarako dena prest izateko. Ordu bietatik aurrera mahaia prestatzen hasten da eta berehala



hasten dira ailegatzen bere alaba, semea eta senarra. Elkarrekin bazkaltzen dute. Bukatzean, bera altxatzen da mahaia jasotzera eta bere seme-alabek laguntzen diote berak harrikoa egin, sukaldea jaso eta zorua garbitzen duen bitartean. Hori guztia egin ondoren, kafe bat prestatzen du bere senarrak lanera bueltatu aurretik har dezan. Guztiek alde egiten dutenean, sofa gainean etzaten da pixka bat deskantsatzeko telebistako programaren bat ikusten duen bitartean. Batzuetan lo gelditzen da. Esnatzen denean, egunen arabera, metatuta daukan arropa lisatzen hasten da edota josi gabe daukan arropa josten. Bere alaba, semea edo senarra itzultzen direnean, pixka bat hitz egiten dute, baina berehala joaten da sukaldera afaltzeko zerbait prestatzen hasteko eta mahaia prestatzeko. Afaldu eta gero, Marian altxatzen da mahaia jaso eta harrikoa egiteko. Esertzen denean, pelikula hasita egoten da eta erdi lo geratzen da sofa gaienean. Bere semea edo alaba ez bada etxera bueltatu, esna geratzen da beren zain. Oheratu aurretik leihoak itxita daudela ziurtatzen du eta berogailua itzalita. Azkenean oheratzen da egun berri bat hasteko prest egoteko. Marian etxekoandrea da, astelehenetik igandera egiten du lan eta ez dauka erretiroa hartzeko itxaropenik.

1. Zerrenda itzazu Marianek egiten dituen zereginak.
2. Zein ordutan altxatzen da? Zein ordutan bukatzen du lana?
3. Zer egiten du Marianek bazkaldu ondoren? Eta afaldu eta gero?
4. Zein egunetan egiten du lan? Zein da bere ordutegia?
5. Marianek lan egiten duela uste duzu? Zergatik?

3. Jarduera: LANAREN BANAKETA SEXUALA

Helburua: Lan erreproduktiboa emakumeek egiten dutela agerian uztea eta errealtate hori gainditzeko lan egitea.

Betidanik izan dira emakumeak bizitzen laguntzen eta gure ongizatea eragiteko ekintzen arduradunak: garbi eta apain egotea, jatea, leku txukun batean egotea, goibel gaudenean maitasuna eta laguntza izatea, gaixo gaudenean zaintzea...Ezinbesteko lanak dira, hauek bete ezean ez genuke ikastetxera edo institutura, bulegora edo lantokira joaterik izango eta ezin izango genuke ez etekinik atera ezta sasoi onean bizitzeko ahalmenik izango.

Lan hauek emakumeen denbora asko agortzen dute, beraiek baitira gehienbat betebeharrak hauen arduradun. Honi **lanaren banaketa sexuala** deritzo, hau da, genero rolen arabera sozialki bereganatuta dauden ekintza eta lanen gauzatzeari. Beraz, emakume batek zeregin erreproduktibo hauek betetzeko ematen duen denbora dela medio, gainerako senitartekoek beraien garapena lantzeko aukera dute baina berarentzat kaltegarria da zeren eta beste ekintza batzuek egiteko aukera zaildu egiten dio, hau da formakuntza, etxetik kanpo lan egiteko aukera. Etxeko lanak egitearren beraren aisialdi eta atsedenerako denbora galarazten zaio.

Soldatapeko lanek eguneroko ordutegia, asteroko egun jakin batzuk eta urteroko atsedeen denboraldi batzuk izaten dituzte, lan erreproduktiboek, berriz, ez dute ordutegirik ez atsedenaldirik ez oporrik. Guztiz kontrakoa, egunero lehenengo hasten da (seme-alaba txikien apainketa, gosariak prestatu...) eta azkenengoa da bukatzen (afaria prestatu eta guztia txukundu hurrengo egunerako).

Gertatu den eboluzioa korapilotsua izan da. Gure gizartean, ohitura denez, umetatik zeregin batzuk beste batzuk baino hobeto egiteko hezi gaituzte, beraz errazago garatuko ditugu ekintza hauek helduak izango garenean. Lan erreproduktiboa emakumeari bereganatzen zaio, etxeko eremura mugatzen du, pribatua den espazio batera; lan produktiboa berriz, hau da,



HEZKIDETZA COEDUCACIÓN HEZKIDETZA COEDUCACIÓN HEZKIDETZA

etxetik kanpo betetzen dena (eremu publikokoa dena), gizonek bereganatu dute eta beraiek menperatzen dute. Banaketa hau ez da arrazoi biologikoengatik egin, eragile kulturalak eta sozio ekonomikoak dira errudunak.

ZEINEK EGITEN DU LAN BAKOITZA?

Aztertu zure familia, zure ama, aita, anai-arrebak eta amona eta aitona zurekin bizi baldin badira. Irakurri arretaz taula honetan agertzen diren lanak eta idatzi zeinek egiten dituen normalean. Idatzi ondoren talde txikietan bildu eta komentatu zuen artean ezberdintasun handiak dauden ala ez eta konparatu gero gelako beste kideekin..

	AMA	AITA	NI	NEBA AI ZPA	ARREBA ANAIA	AMONA	AITONA	BESTE PERTSONA
Erosketak egin								
Gosaria prestatu								
Ontziak garbitu								
Erratza pasa								
Arropa garbitu								
Lisatu								
Eskolako lanean lagundu								
Etxetik kanpo lan egin								
Bazkaria prestatu								
Automobila gidatu								
Zu iratzartu								
Leihoak garbitu								
Ordenagailua erabili								
Ikastetxeko bileretara joan								
Gaixo zaude-nean zaindu								

4. JARDUERA. LANAREN BALORAZIOA

Heburua: Lan erreproduktiboa baloratzea eta gizonen eta emakumeen artean egin beharreko zeregintzat hartzea.

Lan erreproduktiboak ez daude ordainduak produktiboak ordainduak diren bitartean, zergatik?

Kulturalki, gehienek pentsatzen dute naturala eta berezkoa dela emakumeek egitea lan erreproduktiboak eta beraz, naturala denez beraiek familia barnean egitea, ez dira ordaintzen eta ordaintzen ez direnez, gutxietsiak dira eta ez dira lantzat hartzen. Elkar trukatzeko helburuarekin egiten diren lanak merkatuan daude eta zenbakarriak dira, baloratuak dira. Guztiz lan merkantilista da, alegia.

Lan produktiboa gizarteak onartua da, baloratua da eta giza prestigioa du. Lan erreproduktiboa gutxietsia da, sozialki ikusezina da, oharkabea da, baina hala eta guztiz ere, ezinbestekoa da bizitzeko.

Lan horren ikusezintasun horrek estatuen aurrezpena dakar, izan ere, dohain egiten den lana da emakumeen izerdiaz baliatuz, beraiek egiten baitute lan hau. Herri pobreetan egoera hau oraindik larriagoa da, izan ere, emakumeek lan ordu gehiago erabiltzen dute familiaren eta komunitatearen mantentzeko.

Herri guztiek gehituko lukete euren Nazio Produktu Gordina (NPG) emakumeek eginiko ordaindu gabeko lana kontatuko balitz.

Gainera, soldataren truke egiten diren lanen artean, batzuk besteak baino hobeto daude baloratuak. Esate baterako, etxeko zereginetan diharduenak kontratu formal gabe egiten dituzte zereginok, soldata txikiaren truke eta giza-baloraziorik gabe. Honen atzean ezberdintasuna eta giza-jerarkia daude.

Hala eta guztiz ere, emakumeak ordaintzen diren lanetan sartu izanak ez du ekarri gizonen parte hartzea lan erreproduktiboan. Estatistikek horrela erakusten dute.


Emakumeek 3 ordu eta 31 minutu erabiltzen dute etxeko zereginetan; gizonak ordubete eta 10 minutu. Lanari eta hezkuntzari ordu bi eta 35 minutu ematen diote emakumeek; gizonak 4 ordu eta 14 minutu. Hau da, emakumeek gizonak baino



HEZKIDETZA COEDUCACIÓN HEZKIDETZA COEDUCACIÓN HEZKIDETZA

ordu 2 eta 21 minutu **GEHIAGO** erabiltzen dute etxeko zereginetarako eta besteen zainketarako. Lanari eta hezkuntzari ostera, ordubete eta 39 minutu **GUTXIAGO** ematen diote. Asteburuetan gizonek % 80an gutxitzen dute etxeko zereginetarako denbora eta emakumeek apenas % 45ean. 15638 miloi eurokoa da Barne Produktu Gordinean (BPG) zenbatu gabeko etxeko produkzioaren balio erantsia, % 32,8a beraz.

(WWW.emakunde.es/actualidad/cifras etik ateratako datuak)



ORDAINDUAK ETA EZ ORDAINDUAK

Itzul gaitezen aurreko taulara (15.orrialdean), elkar zaituz berriz zure taldearekin eta adieraz ezazue ondoan, zeintzuk ordaintzen diren eta zeintzuk ez. Erantzun iezaiezue hurrengo galderari eta gelakideekin eztabaidatu.

1. Zeintzuk dira ordaintzen diren jarduerak?
2. Zeintzuk dira ordaintzen ez diren jarduerak?
3. Nor aritzen da ordainduriko jardueretan?
4. Nor aritzen da ordaindu gabeko jardueretan?
5. Nork dauka aisialdi luzeagoa?



5., 6. eta 7. JARDUERAK: NORK EGITEN DU ZER?

Jarduera honen **helburua** emakumeei eta gizonei esleitutako rolei buruzko mitoak deuseztatzea da eta laneko errealitateaz eta sexu-genero sistemak duen eraginaz eztabaida sortzea. Hori guztia, ikasleen ikuspegitik begiratuta.

Estatistikek adierazten dutenaren arabera, emakumeak eta gizonak ez dira arbitrarioki sartzten lan sektoreetan. Emakumeek jarraitzen dute tradizioz femeninotzat hartzen diren alorretan (zerbitzuen sektorea, batez ere osasunean eta hezkuntzan) onartuak izaten. Gizonak, batez ere, industria eta eraikuntza sektoreetan ari dira, maskulinotzat hartu izan diren eta, oraindik ere, diren alorretan.

Diskriminazio gehien maskulinizaturiko sektoreetan gertatzen da. Horrek eragin du, sarritan, karrera teknikoa bukatu duten emakume asko ezin izan dira horretan aritu, hezkuntzan jardutea irteera bakarra izan da, euren kide gizonezkoek ez bezala.

Emakumeek lan merkatuan duten partaidetzaren gorakada ez dator bat gaur egun profesionalki prestatuta dauden emakumeen gorakadarekin. Alde hau, oraindik ere, gizonen eta emakumeen arteko gaitasunari buruz dauden aurreiritzi gogorren ondorioek eragin dute.

Emakumeek, behin lana lortuta, beste zailtasun batzuekin egiten dute topo. Lan baldintzak gizonenak baino txarragoak izaten dira: soldata baxuagoa antzeko lana eginda (izan ere, emakumeek estatuan batez besteko % 30 gutxiago kobratzen dute kide gizonezkoekin alderatuta); egun erdiko lanaldiko kontratuak eta mailaz igotzeko aukera gutxi enpresetan diskriminazio handia baitago.

Bertan lanean hasten diren emakumeen kalifikazioaz gain, gehienetan, maila profesional baxuagoko postuetan aritzen dira eta gizartearen aintzat hartze gutxiagokoetan. Honen arrazoia hau da: lan munduan emakumeen kopurua handitu bada ere, askok pentsatzen dute emakumeen soldata familiarri laguntzeko dela, senarraren soldata osatzeko, aintzat hartu barik lanaren

beraren garrantzia, egiten duenak egiten duela eta aintzat hartu barik askatasun ekonomikoaren eskubidea.

Sistema hau guztientzat da injustua, izan ere, nahiz eta teorian edozein lanbidetan aritzeko eta hezteko aukera izan, egiatan, diskriminazio eta presio handia dago gizartearen partetik.

5. JARDUERA. MITOA EDO ERREALITATEA.

Jardueraren garapena. Talde handian fitxan agertzen diren baieztapenen aurrean ikasle bakoitzak bere jarrera azaldu behar du, eta horrela, ikaskideen arteko eztabaida sortu behar da. Aldez aurretik fitxan E(egia) edo G(gezurra) idatz dezatela eskatuko diegu. Irakasleak taldeari bere jarreraren aldeko arrazoiak emateko eskatu eta eztabaida zuzenduko du, beti ere iritzi guztiak entzun daitezen zainduz. Bukatzeko, ideia nagusien sintesia egiten saiatu behar da.

Jarduera honen osagarri izan daiteke emakume eta gizonen gaineko atsotitzak biltzea eta modu kritiko batez aztertzea, mitoak deuseztatzeko.



Fitxa: Erantzun ezazu egia (E) ala gezurra (G) den

Egia / Gezurra

	E	G
1. Gizonek eta emakumeek aukera berdinak dituzte lan merkatuan sartzeko		
2. Sexuaren arabera oraingo gazteek duten lan egoera aldatu egin da, aurreko garaiekin alderatuz gero.		
3. Enpresek ez dute emakumerik kontratatzen gizonezkoenak jotzen diren lanetarako.		
4. Enpresek ez dute gizonik kontratatzen emakumezkoenak jotzen diren lanetarako.		
5. Eskolan emakumeak eta gizonak berdin prestatzen gaituzte etxeko eremuan eta eremu publikoan aritzeko.		
6. Gaur egun jendeak uste du berdin dela gizonek edo emakumeek lan batzuk edo besteak egiteko garaian (medikuntza, iturgintza, ile-apainketa...)		
7. Emakumeak eta gizonak bi kultura berezietan hazi dira.		
8. Gizarteak eta gure inguruak eragin digute geure etorkizuneko lanbidea aukeratzeko garaian.		
9. Mutilen eta nesken arteko desberdintasunak lan bila hasten garen unean hasten dira.		
10. Kultura maskulinoari loturiko balioek, gizartean, balio handiagoa dute kultura femeninoari lotutakoek baino.		
11. Lan merkatuan sartu diren emakumeek lanaldi bikoitza egiten dute.		
12. Erantzukizun handiko kargu gehienak gizonezkoen esku daude, emakumeek kristalezko sabai bat aurkitzen dute.		
13. Emakumezkoen eta gizonezkoen langabezia tasak berdinak dira.		
14. Lan berdina, soldata berdina.		
15. Emakumearen soldata gizonaren soldataren osagarria da.		
16. Gaitasun pertsonalen eta prestakuntzako gaitasunen arabera, emakumeak eta gizonak gai gara edozein lan mota egiteko.		

6. JARDUERA: ZER LAN KONTSIDERATZEN DIRA SOILIK GIZONENAK ETA ZEIN EMAKUMEENAK?

Egin inkesta hau 3 gizonezko ezberdinei eta gero 3 emakume ezberdinei (x) bat jarriz erantzunari dagokion gelaxkan. Garrantzitsua da inkesta bi aldiz pertsona berari ez egitea.

	EMAKUME BATEN ERANTZUNA			GIZON BATEN ERANTZUNA		
	Bakarrik emakumeentzat	Bakarrik gizonezkoentzat	Bientzat	Bakarrik emakumeentzat	Bakarrik gizonezkoentzat	Bientzat
Ileapaindegia						
Mekanika						
Sukaldaritza						
Dantza						
Erizaintza						
Zurgintza						
Hegazkin gidaritza						
Medikuntza						
Irakaskuntza						
Idazkaritza						
Eraikuntza						
Abokatutza						
Etxeko lanak						
Txapista						
Kale garbiketa						
Ingeniaritza						
Pizza banaketa						
Denetara						



TAULAREN ONDORIOAK AZTERTZEKO

Hartu jasotako inkesten taulak eta taldeka komentatu kideekin galdera hauek erantzunez. Gero gelakide guztiekin komunean jarri.

1. Ezberdintasunak al daude erantzunetan sexuen artean?

2. Lan hauek guztiak gizonezkoek eta emakumezkoek egin ditzaketela uste al duzu? Erantzunaren arrazoiak zehaztu.

3. Lan hauek definitzerakoan sexuen arteko ezberdintasunak egiten al dira azken urte hauetan?

4. Eta zuk? Zer izan nahi duzu heldua izatean?

7. JARDUERA. ESTADÍSTIKAK MINTZO.

Jarduera honen helburua bere etorkizuneko lanbidearen aurrean gazteriak egiten dituen aukerak ezagutzea eta modu kritiko batez aztertzea.

Nola gauzatu ikasgelan? Ikasleak taldeetan banatu eta talde bakoitzari estatistikak dituen hurrengo fitxa emango diogu. Ikasle bakoitzak datuak aztertu eta taldekideei bere ondorioak agertuko dizkie, gidako galderei erantzunez. Irakasleak edo taldearen ordezkariak taldearen ondorioen sintesia egingo du.

UNIBERTSITATEKO IKASKETAK			2002 - 2003	
Karrera	% EMAKUMEAK		% GIZONAK	
	EAE	NA	EAE	NA
Arkitektura	53'5	45'9	46'5	54'1
Ingeneritza industrial	36'3	26'4	63'7	73'6
Ingeneritza Teknikoa informatikoan	18	10'7	82	89'3
Ekonomia eta empresa	48'8	47	51'2	42'2
Zuzenbidea	59'5	54'1	40'5	55'9
Filologia	73'2	79'4	26'8	20'6
Kazetaritza	66'5	59'6	34'5	40'4
Itxasontzigintza	13'4		86'6	
Erizaintza	88'5	96'3	11'5	37
H. H.-ko Magisteritza	89'3	94'2	10'7	58
G. H.-ko Magisteritza	33'2		66'8	

ITURRIA: Eustat eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza
Eta Nafarroako Estatistika Institutua

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOKO IKASLEAK			2003 - 2004	
Heziketa zikloak	% EMAKUMEAK		% GIZONAK	
	EAE	NA	EAE	NA
Elektrizitatea eta Elektronika	9'5	5'9	90'5	94'1
Metalgintza	9'5		90'5	
Osasungintza	84'6	80'3	15'4	19'7
Komunitatearen zerbitzuak	91'7	88'5	8'3	11'5
Administrazioa eta komertzioa	77'7	82'5	22'3	17'5
Informatika	32'1	27	67'9	73

ITURRIA: Eustat eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza
Eta Nafarroako Estatistika Institutua

Batxilergoan dagoen ikasleria (%)		
(2002-03 ikasturtea)	EAE	NA
Emakumezkoak	% 53'2	% 45'9
Gizonezkoak	% 46'8	% 54'1

ITURRIA: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailatik eta Nafarroako Estatistika I.



Estatistikei behatutakoan erantzun iezaiezu hurrengo galderari:

1.-Zer ikusten da estatistiketan? Harrigarria iruditu zaizuen daturik ba al dago? Zein?

2.-Zuen ustez, zein da mutilek eta neskek ikasketa desberdinak aukeratzearen arrazoia?

3.-Neskek mutilena dela jo izan den lanbideren bat hartzen dutenean,zein zailtasun eta eragozpen aurkitzen dituzte? Eta mutilek neskena dela jo izan den lanbideren bat hartzean? Nola gaindi daitezke oztopo horiek?

8. JARDUERA: LAN ESKAINTZAK

Helburua: hedabideetan agertzen diren lan eskaintzetan, agerian uzten den lanaren banaketa sexualaz ohartzea.

Emakume gazte bat behar dugu gure loradendan aritzeko. Itxura ona izatea kontutan hartuko da.

Telefonoa: 654789432

Herrialdea: Oñati

Eraikuntza sektorean lan egiteko mutilak behar ditugu. Esperientzia izatea garrantzitsua da lanpostua hartzerakoan.

Telefonoa: 945122324

Herrialdea: Gasteiz

1. Zer nolako lanak eskaintzen dira eta zeini eskaintzen zaizkio?

2. Zer ezaugarri eskatzen dira?

3. Zer eskaintzen dute? Zeintzuk izaten dira hobeki ordainduak?

4. Zer ezberdintasun daude emakumeei zuzendutako eta gizonei zuzendutako artean?



9. JARDUERA: MUNDU BAT ELKARREKIN BIZITZEKO

Helburua: lan guztiak pertsona guztion artean banatuko bagenitu, bestelako mundu bat eraikiko genuke, hain zuzen ere, haxe da gogorarazi nahi duguna.

Pertsona guztiok badaukagu edozein lan egiteko eta zoriontsu bihur gintzakeen zereginean garatzeko gaitasuna.

Lana, gure bizitzan beharrezkoa den zerbait da, nahiz erreproduktiboa nahiz produktiboa, eta, horregatik, guztiz zilegia da egin nahi dugun lana aukeratu ahal izatea, beti ere kontuan hartuta behar-beharrezkoa dela lan erreproduktiboa elkarrekin bizi garen pertsona guztion artean banatzea. Horrela, berdintasunean gozatu ahal izango ditugu egin nahi ditugun beste aktibitate batzuk, lan produktiboak, ikasketak edota gure aisialdiko jarduerak.

PARTEKATZEKO MUNDU BAT

Imajina ezazu nolakoa izango litzatekeen mundua gizonek eta emakumeek elkarren artean egingo balituzte beharrezkoak diren lan guztiak:

- Etxeko lana
- Umeen zaintza
- Pertsona adintsuen eta gaixoen zaintza
- Etxetik kanpoko lana
- Aisialdia
- ...

Idea hori oinarritzat hartuta idatz edo marraz ezazu istorio bat.

MATERIAK

- “Era –Berri Taldea”, Generorik gabeko lanbidea aukeratu. Irakasleentzako gida. Gasteizko Udaletxea, 2002.
- Unitate didaktikoa, Mundu bat elkarrekin aritzeko. Asociación andaluza por la paz y la solidaridad.
- USTEA-ko Emakumeen Idazkaritza, Emakume Andaluziarrak XX. Mendean. Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzarako unitate didaktikoa.

